

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Errolda Kontseiluaren Sail Probintzialerako bere bokala hautatu du

Baita ordezkoko bokala ere

Asteazkena, 2019.eko otsailak 27

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran akordio bat hartu du. Beraren bidez, Errolda Kontseiluaren Sail Probintzian bokal gisa jarduteko bere ordezkaria hautatu du.

Hain zuzen ere, Iosune González Muñoz da, Kudeaketa Juridikoko Negoziatze burua, alegia. Horrez gain, Ana Rodríguez Hidalgo ordezkoko bokal izendatu da, Tokiko Administrazioaren Ordenamendu Saileko burua. Bi unitateak Tokiko Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren barne izango dira.

Errolda Kontseilua Estatuko Administrazio Nagusiaren eta errolda arloko tokiko erakundeen arteko lankidetzako kolegiatutako organo bat da. Izaera estatala du eta osoko bilkuran eta batzordean funtzionatzen du. Probintzia bakoitzean Sail Probintzial bana du, Estatistikako Erakunde Nazionalaren ordezkaria buru duela (EEN), eta honakoek osatzen dute: Estatuko Administrazioaren bi ordezkari; eta probintziako tokiko erakundeen hiru ordezkari (bat Diputazio probintzialekoa – Nafarroari dagokionez, bere Gobernuak- eta bat probintzian nagusienak diren udalerrietako bi elkarte bakoitzeko).

Bere zereginen artean honako hauek nabarmentzen dira: EENeko presidenteari jakinaraztea udalen, diputazio probintzialen eta gainerako tokiko entitateen eta EEN beraren arteko errolda esparruko desadostasunak ebazteko proposamen loteslea; izaera loteslearekin, Gobernuari jakinaraztea udalerrietako biztanleen zifra ofizialei buruz EENeko presidentek egiten dituen proposamenak; eta udal erroldak kudeatzeko argibide tekniko zehatzak ontzat ematea proposatzea.